

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako udal lanpostua (idazkari-kontuhartzailea) betetzea

Kontuan hartuta Lagran-Harana-Añana udal elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik geratuko dela, egungo titularrak kargua utzi duelako, egokia da izapidea hastea egiaztatzeke ea estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioik dagoen, lanpostua aldi baterako betetzeko interesa duenik.

Horrenbestez, alkatetza honek

EBAZTEN DU

1. Prozedura abiaraztea Arabako Foru Aldundiari proposatzeko izenda dezala estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat Lagran-Harana-Añana udal elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan xedatutako moduetakoren batean.

2. Bost egun balioduneko epea hastea, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, estaturako gaikuntza duen edozein funtzionarioik udalari idazki bidez adieraz diezaión lanpostua aipatutako artikuluetan xedatutako edozein eratan betetzeko interesa duela (behin-behineko izendapena, zerbitzu eginkizuna, metaketa). Egoera bakoitzaren barruan, merezimenduen baremo orokorraren araberrako lehentasuna izango da.

Idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da, baita helbide elektronikoko honetan ere: alagran.delia@ayto.araba.eus.

3. Dekretu honen berri ematea udalbatzari hurrengo bilkuran.

Lanpostuaren ezaugarriak:

- Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea.
- Taldea: 1/A2.
- Eskala: estaturako gaikuntza.
- Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzaitza.
- Destino osagarria: 24.
- Berariazko osagarria: 22.696,93 euro.
- Titulazioa: gradua edo baliokidea.
- Hizkuntza eskakizuna: 3.
- Derrigortasun data: 2020ko abenduaren 31.
- Destinoa: Lagran-Harana-Añana udal elkarte.

Lagran, 2023ko azaroaren 9a

Alkatea

URTZI GAINZARAIN GONZALEZ DE DURANA